

179. FITXA 0-3 urte arteko haur-eskolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzak – 2025 - 2026 ekitaldirako

Nori zuzendua: haur-eskolen titularrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak (betiere haur-eskolak EAEko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua indarrean sartu aurretik sortu baziren) eta Gizarte Laguntzako Institutu Nazionalak bere garaian transferitutako haur-eskolen titular diren udalak, betiere eskaerak aurkezteko epea hasten denean ez badute bat egin Haurreskolak Partzuergoarekin.

Sarbide-esteka: [Zero eta hiru urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako dirulaguntzak \(2025-2026\). - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko urriaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez, 0-3 urte arteko haur-eskolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2025-2026 ekitaldira](#)

Eremuak: Hezkuntza

Zenbatekoa: 2.500.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/12/17

Laburpena

Deialdi honen xedea da 0-3 urte arteko haur-eskolen titularrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak ematea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak **0-3 urte arteko udal titulartasuneko haur-eskolen mantenu-kostuak finantzatzeko** laguntza gisa emango dira.

Gastuetarako aldi hautagarria

2025 - 2026 ikasturtea.

Laguntzen zenbatekoa

Haur bakoitzeko moduluak, tartearen arabera, honako hauek izango dira:

Tartea	Modulua	Dirulaguntza
0 urte	7.994,44 euro	4.796,66 euro
urte 1	4.919,65 euro	2.951,79 euro
2 urte	3.553,08 euro	3.553,08 euro